

Triatloilariak, bikain

Zalakain, Munduko Txapelketara; Agirresarobe, «gustura» lanarekin ▶ 3



Harpidedunei banatua ▶ Ostirala ▶ 2005-07-29 ▶ III. urtea ▶ 672. zenbakia ▶ www.tolosaldekohitza.info

AHTren aurkako mozioa aurkeztu dute Anoetan

SINADURAK ▶ Anoetarrok Auzolanean plataformak 248 sinadura aurkeztu ditu

AKANPADA ▶ Alegiako akanpada azken txanpan da; gaur hitzaldia, afaria eta musika izango da ▶ 6



Jubilatuen bazkari ederra jaietako bere egunean

VILLABONA ▶ Santio jaiak aurrera doaz pixkanaka eta atzoko egitarauan jubilatuen izan ziren protagonista nagusiak. Hainbat ekitaldi burutu zituzten egunean zehar: meza nagusia, eskulanean erakusketa, bazkarian 240 lagun inguru elkartu ziren Txermin ikastolan —argazkian— eta dantza egiteko musika. Giro ederrean

pasatu zuten eguna adinekoek. Gaur, berriz, koadrilen txanda iritsiko da Villabonako jaietan. Jende mordoak bilduko da Etxe-Ondoko bazkarian eta ondoren txarangaren kalejiran. Bestalde, Otsabiko DJ festa aternatiboa ere prestatu dute gaurko 17:00etatik hasi eta gauerdira arte. IMANOL GARCIA ▶ 4

JOXEMI SAIZAR ▶ HITZA-KO ZUZENDARIA



NOELIA LATABURU

«HITZA gertutik laguntzen jarraituko dut»

Irailetik aurrera, Leire Montes izango da zuzendaria ▶ 2

TOLOSALDEA ▶

Sanlorentzo jaiak, ate joka bi herritan

Datorren astetik aurrera, Ikaztegieta eta Berastegin ▶ 5

LEITZA ▶

Euskal presoak gogoan festetan

Haien aldeko eguna antolatu dute ▶ 7

JOXEMI SAIZAR ▶ HITZA-KO ZUZENDARIA

«HITZA seme edo alaba balitz bezala jarraituko dut, gertutik laguntzen»

Irailetik aurrera eskualdeko egunkariaren zuzendaritza utziko du «proiektua sendotuta, beste esku batzuetan uzteko une egokia» delako

NOELIA LATABURU

Lau urte eskualdeko euskarazko egunkariaren —hasieran *Tolosaldean Eguneroko*, gero *Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA*— zuzendari izan ondoren, irailetik aurrera postua utziko du Joxemi Saizarrek. Proiektu honetaz eta bere esperientziak mintzatu da.

Lau urteren ostean, nolakoa izan da esperientzia?

Oso aberasgarria alor guztietan. Inoiz esperoko ez nuen aukera eman dit postu honek.

Ibilbide honetan zein une azpimarratuko zenuke?

Bat-batean une latzenak etortzen zaizkit burura: hasieran martxan jartzeko eztabaidak Galtzaundiren barruan eta erakundeekin eta *Egunkaria*-ren itxiera, eragin zuzena izan zuelako *Eguneroko*-n eta proiektuko bi kide —Martxelo Otamendi eta Amando Hernandez— atxilotu zituztelako. Une horiek gaintitu ziren eta ondorioz une gozoenak ekarri dituzte: proiektua martxan eta berrindartuta ikustea herriaren laguntzari esker. Jende askoren parte-hartzea ezinbestekoa izan da proiektua aurrera atera ahal izateko.

Eskualdeko euskarazko egunkaria jaiotzen laguntzea, nola ikusi duzu garapena?

Hasieran ez genuen aurrekaririk, eredurik beste inon. Ez genekien posible izango ote zen egunkari bat eguneroko kalera: alde teknikoak, nahiko informazioa sortuko ote zen eskualdean, kazetari gehienak hasi berriak, banaketa nola egin... Pixkanaka hori gaintitu eta hobetzen joan da, sustrai sendoak ditu eta erronka be-



NOELIA LATABURU

riak ditu: harpidetza handitu da, banaketa eta produktua hobetu. Leitzaldera zabaldu da, webgunea jarri...

Zergatik erabaki duzu aro honi amaiera ematea?

Proiektu honetan erabat sinetsi izan dut hasieratik eta hala pentsatzen jarraitzen dut. Erronka handia zen eta gogo handiz hartu nuen martxan jartzeko eta lehen pausoetan gidatzeko proposamena. Inoiz ez nuen betirako emandako pauso gisa planteatu eta horregatik eskatu nuen eszedentzia Laskorain Ikastolan, nire betiko lantokian. Lau urte hauetako epean denon artean proiektua martxan jarri, bideratu eta sendotu dugunez, beste esku batzuetan uzteko une egokia dela iruditzen zait.

Zuzendaritza berria

Irailetik aurrera zuzendari berria izango du HITZAK. Leire Montes 26 urteko tolosarra. Kazetaritza ikasi zuen Iruñean, Nafarroako Unibertsitatean. *Euskaldunon Egunkaria*-n egin zituen praktikak eta *Tolosaldean Eguneroko*-n sortu zenetik orain arte Tolosako erredaktore izan da eskualdeko euskarazko egunkariaren.

Zuzendariordea berriz, Iraite Etxebeste 25 urteko kazetaria izango da. Kazetaritza ikasi du Leioan, EHUn. Euskadi Irratian egin zituen praktikak eta eskualdeko euskarazko egunkaria sortu zenetik aritu da erredaktore gisa, ha-



Leire Montes. AMAIA BELAUNZARAN

sieran Ibaraldean eta azken bi urteotan Tolosan. ◀

UNEAK

«Sorrera bera eta 'Egunkaria'-ren itxiera izan ziren latzenak; horiek gaintitu eta etorri dira gozoenak»

ESPERIENTZIA

«Aberasgarria izan da alor guztietan; inoiz esperoko ez nuen aukera eman dit postu honek»

**Zein dira eguneroko prentsa-
ren erronkak? Eta HITZAren
kasuan?**

Eguneroko eskualdeko informazioarekin egunkari bat euskaraz txukun egitea ez al da nahiko erronka? Eguneroko hobetzea eta erronka berriei eustea dira beste erronka batzuk, telebistarena adibidez.

**Jarraituko al duzu kazetari-
tza?**

Herriarekiko kezkek eta maitasunak mugiarazi nau bati. Tolosa, eskualdea eta Euskal Herriaz ari naiz. Lehendabizi euskara eta horrekin batera kultura, ohiturak, historia... Kezka hori nire lan profesionalan —Ikastolan— eta borondatez hainbat kultur talde —Urtxintxak, Udaberri, musika banda, CIT, Galtzaundi— eta komunikabidetan —*Argia*, *Egunkaria*-ren sorreran kazetari, *Galtzaundi*-n koordinatzaile hamar urtez— bideratu izan dut orain arte. Bide horretatik jarraitzea da nire asmoa.

Zer uzten duzu HITZA-n?

Lagun eta harreman berri asko, lan talde oso ona —oraingoa eta aurrekoak—. HITZA aurrera ateratzeko egin duten lan guztia eskertu nahi nuke eta benetan proiektua martxan jartzeko pertsona bat nabarmendu behar bada, Enekoitz Esnaola da hori.

Nola jarraituko duzu HITZA?

Seme bat bezala: ahal den gertuenetik eta nire eskuetan dagoen guztia emanez proiektua laguntzeko.

hitza **txokoa** *lagunen*

'Lagun ezazu
HITZA laguntzen'

▶ HITZA laguntzen duten harpidedunen artean zozketatutako **BETI ALAI jabetxean 4 lagunentzako otordu eder baten irabazlea: MARIJO MURILLO ARIZMENDI (ALEGIA)**

Tel.: 943 67 33 81 / 943 67 19 20
Erremerterri kalea, 16 • 20400 TOLOSA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA laguntzen duten harpidedunen artean zozketak astero

TRIATLOIA ▶

Gure triatloilariak bikain

Asteburu honetan Danimarkan egingo den Munduko Txapelketan izango da Egoitz Zalakain tolosarra; Aimar Agirresarobe «gustura» egindako lanarekin



Egoitz Zalakain eta Aimar Agirresarobe triatloilari tolosarrak Zerkausiaren aurrean. LEIRE ZUBELDIA

LEIRE ZUBELDIA

Hiru kirol ezberdin proba bakar batean. Horixe da triatloia modu simple batean esanda. Kirol gogorren fama du, hala ere, eskualdeko gazteak ez dira esan horren aurrean uzkuritu eta emai-

tza onak lortu dituzte denboraldi honetan.

Aimar Agirresarobe Tolosaldeko taldean dihardu eta 3. denboraldia du aurtengo hau. Bere hitzetan, «oso gustura» dago egin duen lanarekin. «Proba gehienetan lehenengo 15etan sartzea lortu dut eta

beste urteekin alderatuz, hobekuntza nabaritu dut». Egoitz Zalakain beterranoagoa da mundu honetan. Atletico San Sebastian taldean egiten du lasterka. Azken honekin, 6 urte daramatza lasterketetan parte hartzen eta bera ere pozik dago. «Oso denboraldi ona

egin dut, eta duatloiean inoiz baino hobeto aritu naiz». Horren erakusgarri da, maiatzean egin zen Ordiziko duatloiean irabazle izan zela, eta Zarautzeko triatloiean ere 7. postua lortu zuen. Emaitza horiek guztiek, Euskal Herriko txapeldu-norde titulua eman diote Tolosakoari.

Gehienbat, Euskal Herrian egiten diren probatan hartzen dute gazte hauek. «Euskal Herriko zirkuitoan bizikletari leku gehiago ematen zaio eta gu hor ibiltzen gara ondoen», esan du Egoitz Zalakainek. «Espainiako lasterketetan, igerrian gehiago egin behar da. Beraz, guretzat ez da aproposena», nabarmendu du gero.

Nahiz eta Agirresarobe denboraldia bukatutzat eman, Zalakain gazteari aurtengo lasterketa garrantzitsuenan gertatzen zaio oraindik. Asteburu honetan bertan, Danimarkan, Munduko Txapelketa egingo da eta bertan izango da tolosarra. Itxaropentsu somatu genuen. «Oso ondo aurkitzen naiz. Gero ikusiko dugu zer gertatzen den», gaineratu du txantxa artean.

Hurrengo denboraldiari begira, helburuak finkatuak dituzte jada. «Aurtengo errepiakaten badut gustura geratuko naiz, hala ere, nire helburua hobetzea izaten da beti», esan du Agirresarobe. Zalakainek oster, denboraldi berrian beste garaipen bat lortu nahi du. Bestelako asmo batzuk ere baditu: «Zarauzko triatloian esfortzatuko naiz eta agian

Ironman-ean ere egingo dugu saiakuntza».

Solasaldia amaitzeko mezu bat zabaldu nahi izan dute bigazteek: «Triatloia oso kirol zaila eta gogorra dela mito hutsa da», adierazi du Zalakainek. «Jendeak uste du, triatloia *Ironman*-a dela soilik eta hori ez da horrela. Distantzia txikiko proba asko daude, eta hoiiek ez dute prestakuntza handirik eskatzen», nabarmendu du gero.

Azkenik, Agirresarobe, beste zalantza baten berri eman du: ez daki hurrengo denboraldian Tolosan jarraituko ote duen. «Duela urte batzuk, Tolosaldeko taldean 20 kirolari inguru zeuden eta Espainiako talderik onena zen. Orain berriz, bi kirolari bakarrik gaude», adierazi du atsekabetuta. Triatloilari gazte honen hitzetan, talde dinamika batean errazagoa da lasterka egitea eta hori da zehazki orain faltan botatzen duena. Bi mutilek aditza eman dutenez, mota hauek probatan bakarka parte hartzen duten kirolari asko daude eskualdean. Guzti horiei helarazi nahi die mezu hau: «Ea jendea animatzen den. Gu saiatuko gara taldea osatzen, baina aspertzen garen egunean akaboa».

ITXASO LEUNDA ▶ TRIATLOILARIA

«Asko gustatzen zait ezagutu berri dudan mundu hau»

Itxaso Leunda hernaldearrak aurtengo hau izan du bere lehenengo denboraldia triatloian. Gasteizeko Svc Seguridade neska taldean ari da. Denboraldi bikaina burutu du berak ere. Aurreko asteburuan Plentzian egin zen Euskal Herriko nesken akuatlo txapelketan, lehen postua lortu zuen 23 urte azpikoen kategorian.

Zer moduz joan da lehenengo denboraldia?

Hasiera batean nahiko galduta ibili nintzen. Ez nuen mundu hau gehiegi ezagutzen. Baina entrenatzaileak gidatu nau eta azkenean nahiko ondo joan zaizkit gauzak. Gainera, hasierako asmoa triatlo bakarrean parte hartzea zen, baina azkenean zazpi egin ditut.

Emakumea zaren aldetik, nolako da zuen parte hartzea?

Emakume gehiago izango ginelaste uste nuen hasieran. Espainia mailako lasterketetan



LEIRE ZUBELDIA

adibidez, 30 emakume inguruk hartu dugu parte. Nire lehenengo proban, oroitzen dut, 20 emakume besterik ez gine-la atera. Horrek noski, harritu egin ninduen.

Triatloia kirol gogorra dela esaten da. Ados al zaude?

Biguina behintzat ez da, hori argi dago. Entrenamendu asko eskatzen du. Kontuan hartu

behar da, hiru kirol ezberdinetan trebatu behar duzula eta, noski, denbora behar da horretarako. Ongi ibili nahi duenak behintzat dedikazio eskaini behar dio.

Lehenengo denboraldia eta jada Euskadiko selekzioak hartu zaitu. Espero al zenuen horrelakorik?

Erkidego Autonomikoen arteko Espainiako Txapelketan, euskal selekzioarekin parte hartzeko hautatua izan naiz eta egia esan ez nuen horrelakorik espero. Oso albiste pozgarria izan da niretzat.

Luzerako ikusten al zara triatloilari gisa?

Aurtengo esperientziak baietz esaten dit. Asko gustatzen zait ezagutu berri dudan mundu hau eta oso gustura nabil. Egia da, konpetizio aurreko momentuetan gaizki pasatzen dudala, baina merezi duela uste dut. ◀

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112))

Osasuna.

▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212

▶ **Anoeta-Alkiza-Hernalde.**

Medikua: 65 23 39

▶ **Asteasu.** Medikua: 692423

▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua:

683361

▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134

▶ **Ibarraldea.** Osasun etxea:

672411

▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720

▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800

▶ **Orendain.** Medikua: 655595

▶ **Orexa.** Medikua: 682228

▶ **Tolosa.**

▶ Anbulatorioa, larriald:461111

▶ San Esteban: 006800

▶ Gernikako arbola: 006900

▶ Amaroizko dispen.: 672637

▶ Asunzioz klinika 675799 -

67 53 90 (larrialdiak)

▶ **DYA:** 672536

▶ Gurutze Gorria: 674888

▶ **Villabona.** Anbulat.: 006970

▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerb: 693930

Garraioak.

▶ Renfe: 902 24 02 02

▶ Donostiako autobusa: 361740

▶ Tolosaldea bus: 650621

▶ Leitza autobus: 948 221015

▶ **Taxia:** 670420

▶ **Taxia (Leitza):** 608 873016

Besterik.

▶ Ertzaintza: 538820

▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858

▶ **Tolargi:** 650016

▶ Iurramendi egoitza: 670325

▶ Tolosa gasa: 675320

TOLOSA LANTZEN, S.A.

Lehiaketa

2005eko uztailaren 15ean Tolosa Lantzenen Administrazio-Kontseilua, Usabal Polikiroldegia Taberna-Kafetegi eta jatetxearen ustiatzeko baldintza administratibo partikularrak onartu dira:

1.- **Helburua:** Usabal Polikiroldegia Taberna-Kafetegi eta jatetxearen lokal moldaketa eta ustiapena.

2.- **Kanona:** Enkantzatzailer Udalari ordaindu beharreko zenbatekoa adieraziko du.

3.- **Kontratuaren iraupena:** Hogeita bost urte iraungo du, gero bost urtez luzatu behin luzatu dezake beste bost urterako

4.- **Espediente ikusteko:** Tolosako Udalari ordaindu beharreko zenbatekoa adieraziko du.

5.- **Behin behineko fidantza:** 3.000 eurok

6.- **Behin betiko fidantza:** Egin behar diren obra eta instalazioen kostuaren zenbateko osoari lehen ekitaldiko urteko kanona gehituta ateratzen den kopuraren %4.

7.- **Eskaintza egiteko epea eta tokia:** TOLOSA LANTZEN, S.A.-ren egoitzan (Plaza Zaharra, 6-B), 2005eko irailaren 15ean ordu bata baino lehen.

Tolosan, 2005eko uztailaren 19an
TOLOSA LANTZEN LEHENDAKARIA
Jokin Bildarratz Sorron

GIZARTEA ▶

Tropela.net
porrako sari
banaketa

Tropela Elkarateak, euskara eta teknologia uztartu nahi dituen diru irabazi gabeko elkarateak, *tropela.net* Tourreko porra antolatu du aurren. Hiru mila lagunetik gora hartu dute parte eta tartean Tolosaldekoak eta Leitzaldekoak izan dira. Horrela, lehiaketari amaiera emango dion sari banaketa gaur bertan egingo dute. 19:00etatik aurrera izango da Zestoako Bai-nuetxean.

TOLOSA ▶

Pala txapelketako
finala jokatu da
gaur Berazubín

Tolosa CF-ko 37. Pala Txapelketa azken egunera iritsi da. Herenegun finalerdiak jokatu ziren. Lontxok eta Nazabalek Apeztegia eta Maiza gailendu zituzten 30-19, eta Zabalek eta Urdanpilletak Goitia eta Otermin gailendu zituzten 30-24. Horrela gaur 19:00etan hasita, Berazubi frontoian, hirugarren eta laugarren postua erabakitzeko partida jokatu da. Ondoren finala jokatu da eta amaitzeko lagunarteko afaria egingo dute.

ANOETA ▶

Ohiz kanpoko
bilkura egingo
dute gaur

Udal Bilkurak ohizkanpoko bilkura egingo du gaur Anoretan. Goizeko zortzietan egingo dute eta gai bakarra jorratuko dute. Herriko A14, A20, S1 eta R1 areei buruzko planeamenduko arau subsidiarioen aldaketa eta zuzenketa onesteko proposamena izango da mahai gainean izango duten gaia.

VILLABONA ▶ SANTIOAK

Bazkari ederra egin dute
jubilatuek bere egunean

Gaur koadrilen txanda izango da; giro ederra espero da Etxe-Ondoko bazkarian

IMANOL GARCIA

Santio jaiak pixkanaka ari dira bigarren asteburura iristen. Jubilatuek bere eguna izan zuten atzokoan eta hainbat ekitaldi izan zituzten. Eguerdian meza nagusia izan zuten eta goiz gutzian zehar erakusketa izan zen. Bertan, jubilatuek urtean zehar egin dituzten eskulanak erakutsi zituzten. Ondoren eguerdian bazkaltzeko elkartu ziren. Guztira 240 lagun bildu ziren Txermingo ikastolan eta giroa alai bazkaldu ondoren, dantza egiteko musika izan zuten.

Gaur koadrilen txanda izango da eta bereziki nabarmen-tzekoa da Etxe-Ondon izango duten bazkaria. Jende mordo bat bilduko da koadrilatan, bakoitza bere bazkari eta edariekin. Ondoren, txarangaren la-



Jubilatuak bazkaltzen atzo Txermingo ikastolan. I. GARCIA

guntzarekin kalejiran joango dira plaza aldera. Eguraldiak ez badu laguntzen bazkaria Txermingo ikastolan egingo dute.

Otsabiko DJ festa

Bestalde, gaur Otsabiko DJ festa alternatiboa antolatu dute Zizurkilgo lokalak eta Onddo

EGITARAUA ▶ GAUR

Koadrilen Eguna.

11:00. Gorriti (Noe-ren Arka) haur jaialdia plazan.
14:30. Koadrilen arteko bazkaria Etxe-Ondon. Gero kalejira Incansables txarangarekin plazaraino.
20:00. Dantzaldia plazan Etxabeko Anaiak taldearekin.
23:30. Dantzaldia Plazan Etxabeko Anaiak taldearekin.

Gaspe Asanbladak. Otsabiko parkean izango da festa. 17:00etan hasiko da DJ Andoni 19:00ak arte. 19:30ean hasi eta 21:00ak arte DZ ariko da. Ondoren eta 22:00ak arte tinbalak izango dira. 22:00etatik 24:00ak arte DJ Haritz eta ondoren eta goizalderarte DJ Eneko eta DJ Imanol.

ZIZURKIL ▶ AISIA

**Hilabeteko**
oporrak
euskaraz

I. Garcia ▶ Zizurkilgo haurrek ekainaren azken astean eta uztailean zehar Oporretan Euskaraz udaleku irekien baitan hainbat ekitaldi egin dituzte. 3 urtetatik hasi eta 12 urte arteko haurrek nahi adina jolastu dute eta baita bidaiak egin ere, Gamarrako igerilekuetara esaterako. Azken egunean ikuskitzuna prestatu zituzten —argazkian azaltzen dena kasu— eta gurasoen aurrean antzeztu. Antzerkia, malabark, bertsoak... denetatik izan zen. I. GARCIA

MAXOLA
TABERNA

Erriobeia, 4
Tel.: 943 69 05 91

Villabonako jaietan ere zuekin!

SHEPHERD'S

Kale berria, 25

JOE BAR

943 69 31 54
Antxin, 1 • VILLABONA

Taberna
Rainbow
Villabona

Nagusia 46 • Tel.: 943 69 35 16

IRV ALDETA • **EDARITEGIA**

Kale Berria, 15
Tel.: 943 69 09 41

20150 VILLABONA

SAN LORENTZO JAIAK ▶

EGITARAUA ▶

BERASTEGI

Abuztuak 5, ostirala

18:30. Txupinazoa herriko jaietako hasiera emateko.

Ondoren. Frontenis txapelketaren finalak.

22:00. Herri afaria.

00:00. DJ Bullen saioa, goizalderarte.

Abuztuak 6, larunbata Koadrilen Eguna.

09:00. Goiz deia.

11:30. Lehenengo bakailoa saltsa berdean lehiaketa.

Ondoren. Dastaketa.

14:00. Koadrilen arteko bazkaria herriko plazan.

15:30. Plater tiraketa herrikoia Artalekun.

17:00. Koadrilen arteko jokoak.

19:00. Sagardo dastaketa.

00:30. Erromeria Gozategi taldearekin.

Egunean zehar. Txaranga izango da giroa alaitzeko.

Abuztuak 7, igandea

09:00. Goiz deia.

12:00. Gazteen pilota partidak; benjaminen, alebinen eta kadeteen arteko finalak.

18:00. Briganthya, euskal musika eta zeltiarra bat egiten dituen talde goierritarren emanaldia.

Ondoren. Herriko dantzari gazteen emanaldia.

00:30. Laiotz taldearekin dantzaldia goizalderarte.

Abuztuak 9, asteartea

Umeen Eguna.

09:00. Goiz deia.

10:30. Puzgarriak eta jolasak haurrentzat.

17:30. Kiki, Koko eta Moko pailazoak.

Ondoren. Herri arteko futbito txapelketako finala jokatu dute.

22:00. Frontis enpresako pilotari profesionalen partidak izango dira ikusgai.

00:30. Ezein taldearekin dantzaldia.

Abuztuak 10, asteazkena

San Lorentzo Eguna.

09:00. Goiz deia.

09:30. Meza, San Lorentzo ermitan.

Ondoren. Hamarretakoa.

12:00. Meza nagusia San Martin parrokian.

13:00. Aitor Mendiluze eta Angel Mari Peñagarikano bertsolarien saioa.

18:30. Aizkolariek bertsolariez lagunduta egingo dute saioa.

Mikel Mindegia-Xabier Mindegia; Unai Otaño-Joxe Ugarteburu.

Jarraian. Herriko dantzarien emanaldia: San Joan dantzak eta ezkonduen dantza-soka dantzatuko dituzte, besteak beste.

00:00. Joselu anaiak taldearekin dantzaldiak emango die amaiera herriko jaietako.

IKAZTEGIETA

Abuztuak 5, ostirala

19:00. Txupinazoa.

19:15. Buruhandiak.

23:00. Erromeri kontzertua, Triki Ta Ke eta The Solano's taldeekin.

Abuztuak 6, larunbata

Umeen Eguna

11:00. Plater jaurtiketa (entrenamendua) Istingorri baserrian.

11:00. Umeen jolasak. Berziklatutako gauzen jolasak eta puzgarriak parke inguruan.

Ondoren. Bakoitzak bere ogitartekoarekin bazkaria parkean. Oharra: haurren zaintza guraso bakoitzaren ardurapean gelditzen da.

15:30. Plater jaurtiketa.

18:00. Aeromodelismo erakustaldi erraldoia: 50 kotxe, 4 helikoptero eta 3 hegazkin.

Edozeinek autoa gidatzeko aukera polita izango du.

21:00. Herri afaria. Amalur taldearen doinuek alaituko dute giroa.

Ondoren. Erromeria Amalur taldearekin.

Abuztuak 7, igandea

11:00. Meza.

Ondoren. Dantza saioa.

18:00. Pilota partidak: Iburguren (Ikaztegieta)-Olano (Alto); Alonso (Ikaztegieta)-Artola (Alegia). Renobales (Alegia)-Argote (Zarautz); Belloso (Bidania)-Oteiza (Zarautz).

Ondoren. Erromeria kalean zehar Berriketan trikitalariekin.

22:30. Bertso saioa Amurizaren eskutik kiroldogegimnasioan: *Lazkao Txiki, bat bateko sorgina.*

Ondoren. Berrriketan trikitalariekin saioa.

Abuztuak 8, astelehena

Atsedean hartzeko eguna.

Abuztuak 9, asteartea

Atsedean hartzeko eguna.

Abuztuak 10, asteazkena

San Lorentzo eguna.

11:00. Meza.

Ondoren. Txakoli dastaketa pilotaleku zaharrean.

17:00. Heriz magoaren

ikusizuna pilotaleku zaharrean.

19:00. Herri kirolak: Koxe Rikondoa aizkoran buruz beheara ariko da, eta alturan epaiak ematen eta

motozerrarekin irudiak egiten eta harri jasotzen. Zelaik eta Miren Urkiolak ere eskainiko dute erakustaldia.

Ondoren. Erromeria kalean zehar Lopetegi ahizpen eskutik.

22:30. *Ithurian zer dago?* trikifixa, bertsolari eta dantza emanaldia pilotaleku zaharrean.

Ondoren. Dantzaldia Irats taldearekin.

Abuztuak 11, osteguna

Koadrila eta adinekoen eguna.

11:00. Meza.

12:30. Paella dastaketa.

14:00. Koadrilen bazkaria pilotalekun.

14:00. Adinekoen bazkaria Herrigintza elkartearen.

Ondoren. Mus eta toka txapelketa.

20:00. Sardina jatea Begiristain sagardoarekin.

23:00. Ainar eta Miren trikitalariekin dantza saioa.

Egunean zehar. Jolas parkea 11:30etik 13:30era eta 15:30etik 18:30era.

Sanlorentzoak ate joka

Datorren astean hasiko dira Berastegin eta Ikaztegieta San Lorentzo jaiak; bospasei egunetan zehar festa giroa izango da nagusi bi herrietan

IÑIGO TERRADILLOS

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAK oporrak hartuko ditu abuztuaren baina eskualdeko hainbat eta hainbat herritan ez dute atsedeenik izango, jaietan izango baitira. Horien artean ate joka direnak San Lorentzo jaiak dira, eskualdean Berastegin eta Ikaztegieta ospatzen dituztenak.

Abuztuaren 5etik abuztuaren 10a bitarte jai giroan murgilduko da Berastegi, Udalak, Urepele elkarteak, Basurde elkarteak, Guraso elkarteak eta Aldin kultur elkarteak antolatutako festetan. Txupinazoak emango die datorren ostiralean hasiera salontzoei, eta herri afarian bilduko dira herritarrek ondoren; amaitzean, musikarekin luzatuko da festa goizalderarte. Bigarren eguna koadrilen izango da, ekitaldi ugari izango dituztelarik: bakailu lehiaketa, bazkaria, joko-



Berastegiko iazko jaietan patata tortila lehiaketako irabazleak. J.A.

ak, sagardo dastaketa, erromeria... Igandean, berriz, pilota partidak, musika eta dantza izango dira. Asteartean gazte-txoentzako bereziki prestaturiko egitaraua izango da, jolasak, pailazoak, futbito txapelketa izango direlarik besteak beste. Eta azken egunean, hau da, San Lorentzo egunean, bertsolarien, dantzarien eta aizkolarien saioak nagusituko dira.

Ikaztegieta, berriz, abuztuaren 5ean hasi eta abuztuaren 11 bitarte luzatuko da festa. Datorren ostiralean jaietako hasiera ona emateko bi musika talderen doinuek alaituko dute

giroa. Hurrengo egunean haurrek gozatu ederra hartuko dute, Umeen Eguna izango baita eta beste artean aeromodelismo erakustaldia izango dute, auto, hegazkin eta helikopteroekin, eta bereziki haurrek aukera izango dutelarik autoa gidatzeko. Igandean pilota partidak, bertsolariak eta trikitalariak azpimarratu behar dira. San Lorentzo egunean, Heriz magoaren ikuskizuna, txakoli dastaketa, herri kirolak, trikifixa, bertsokak, dantza... antolatutakoak, adin guztiei zuzendurikoak, beraz. Eta azken eguna koadrila eta adinekoen eguna izango da, besteak beste, bazkariak, mus eta toka txapelketak, jolasak, paella dastaketa, sardina jatea eta dantza saioak osatuko dutelarik.

Batean hasi bestean amaitu gure eskualdean hamaika herritan izango dira jaiak abuztuaren Urrutira joan gabe, beraz, etxetik gertu, izango da festa giroa.

LIZARRIBAR
OINETAKOAK
orain merkeago
Arostegieta kalean • TOLOSA

AHT ▶

AHTren aurkako mozioa aurkeztuko du Anoetarrok Auzolanean

Proiektua bertan behera uztea eskatuko du plataformak osoko udalbatzarrean; Alegian, akanpadak segitzen du



Jende ugari egin du bat AHTren aurka Langaurren; argazkian atzo eginiko asanbladaren une bat. N.L.

NOELIA LATABURU

Anoetarrok Auzolanean herri plataformak, Anoetako AHT Gelditu! plataformarekin elkarlanean osoko udalbatzarrean mozioa aurkeztuko du, 284 sinadurekin batera. Plataformaren helburua bertan azalduko dituzten hiru puntu eztabaidatzea eta onartzea da. Batetik, Anoetako Udalak Abiadura Handiko Trenaren proiektuaren inguruan, lehendabizi ondo informatzea eskatuko du,

ingurumeneari, nekazaritzari, bertako ekonomian, lurraldearen antolakuntzan, energien ekoizpenean bere hornikuntzarako eta natur baliabideen ustiapenean izango duen eraginez. Bestetik, informazioa, eztabaida sakona egin ondoren, Udalak, anoetarrei AHT proiektuaren inguruan kontsulta egiteko eskatzen du. Azkenik, Udalak AHTren proiektua gelditzeko bitarteko guztiak jartzea derrigortu nahi du plataformak, bai eta Eusko

Jaurlaritzari, Nafarroako gobernuari eta espainiar estatuko gobernuari egitasmoa berehala geratzeko eskatzea ere.

Anoetarrok Auzolanean herri plataformak bi mailatan jarri du auzitan AHTren proiektua, ingurugiroari eragingo lizkiokeen kalte larrien mailan eta «oso bereziki» gizarte arloan —ekonomian, nekazaritzan zein lurraldearen orekan— pairatuko liritekeen ondorioen mailan. Honen harira, adierazi dute AHT geldiaraztea bezain garrantzitsua dela «bere atzean gordetzen den gizarte eredu kapitalista erabat zalanztan jartzea». Plataformak proiektuak eragingo dituen kalte larriak aurkeztuko ditu aipatu mozioan. Ingurumenari eraso latza suposatuko duela, globalizazio prozesuaren interesei erantzuten duen makro proiektua dela; trenaren itxura duen arren «hegazkinarekin lehian» dagoela; elitista dela; batu ordez bereizi egiten dela; garraio arazoak konpontzen ez dituela eta inposatutako

iragarki laburrak ▶

LANA

Sukaldaria. Asteburuetarako eta oporren ordezkapena egiteko sukaldaria behar da. Deitu 943 69 19 33.

Jan eskaera. Andrea eskaintzen da informeeekin irailetik aurrera arratsaldean egiteko. Deitu 685 701 016 zenbakira (15:00etatik 22:00etara).

TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Agenda. Abuztuan zehar Tolosaldeko eta Leitzaldeko hainbat herritan jaiki izango dituzte. HITZAK hauen egitarauak jarriko ditu bere webguneko agenda atalean. Egin bisita, beraz, jaietara joan aurretik. Halaber, beste hainbat zerbitzu ere eskainiko ditu webguneak.

EGITARAUA ▶

Igandean amaituko da AHTren aurkako X. akanpada, Alegiako Langaurre zelaian.

GAUR

Aralarrera mendi martxa.
19:00. Hitzaldia: *El turismo como forma de producción capitalista*. Hizlaria: Asanblada des maulets de L' Horta-ko kide bat.
21:00. Afaria. Gero, Jonas kantautorea eta Aluaren bikotea.

BIHAR

10:30. Tziazaren eskutik, umeentzako tailerra eta sendabelarren tailerra.
11:00. Hitzaldia: *Errauskailuak eta plan alternatiboa Gipuzkoan*. Hizlaria errausketaren aurkako plataformako kidea.
14:00. Bazkaria, Koordinazio tailerra eta AHT dekorazio tailerra.
18:00. Ikuskizuna umeentzat.
21:00. Zahagiardoa
22:30. Bulebarrean kontzertuak: Lobo electrico, Perras del infierno, Elfo negro eta DJ Sugar.

proiektua dela. Honengatik guztiagatik, herriaren iritzia aintzat har dadila eta kontsulta egitearen aldeko apustua luzatuko du plataforma abertzaleak.

Akanpada, azken txanpan

Bien bitartean, AHTren aurkako X. akanpada aurrera darrai Alegiako Langaurreko zelaian. «Hausnarketarako eta harremanetarako leku» izan den kanpaldi hau, gainera, asteberteren ostean, azken txanpan sartuko da. Akanpadak AHTren proiektuaren aurkako aldarrikapenarako balio izan du. Halaber, «obrak inoiz hasi ez daitezkeen datozen hilabeetarako ere mobilizazioak prestatuko ditugu», adierazi dute AHTren aurko asanbladako kideek. Atzo ere egun potoloa antolatuta zuten eta goizetik makina bat ekitaldi izan ziren. Rapelatzeko tailerrarekin hasi ziren, ondoren AHT: zer da eta gaur egungo egoera izenpeko hitzaldia eskaini zuten. Arratsalde berri, ohiko asanblada egin zuten. Ondoren, kirolerari tartea eskaini zioten, pilota saioekin. Iluntze aldera hitzaldi berri bati eman zioten paso, La educación y el estado de sumisión inconsciente hitzaldia, alegia. Bertal Crecer sin escuela taldeko kide bat aritu zen. Musikarekin itxi zuten eguna, Jonas kantautorearen eskutik.

GIZARTEA ▶

Errepideetara aterako dira gaur presoan alde

Abuztuaren 7an elkarretaratzea egingo dute Euskal Herriko hondartzetan

ERREDAKZIOA

Etixerat, preso senideen kolektiboak, gaur presoan aldeko eskubideak aldarrikatzeko errepideetara ateratzeko deialdia luzatu du. Halaber, abuztuaren 7an hondartzetan elkarretaratzea egingo dute, banderolak eskuan Euskal Herria osoa zeharkatuz. Etxeratek, Euskal Herriak bi estatuekin berehala konpon-bidean jarri behar duen gatazka politikoa historikoa duela jakinarazi nahi du, egun preso eta ihesan diren herritarrek etxeratu dituen konponbidea behar dela, alegia.

Bestalde, Etixerat-ek dolu mina eta elkartasuna adierazi nahi izan dio Imanol Gomezen senide eta lagunei. «Euskal Herriak espainiar eta frantziar estatuekin duen gatazka politikoa eragin duen biktima berria» dela gaineratu. Etixerat kolektiboaren helburua, «guztion indarrak metatuz», bi estatuek preso dituztenen eskubideak defendatzea da.

AMEZKETA ▶

XVI. Joxean Tolosa Txapelketako neurketak

N. LATABURU

Neurketa gehiago jokatuko dira Amezketa XVI. Joxean Tolosa Txapelketako jardunaldi berri batean hilaren azken asteburuan. Gaur, Yeregi-Iraola, Azkune-Gorrotxategi eta Beobide-Aranburu pilotariak jokatu dute. Bihar, berriz, Diez-Idoate, Legarreta-Nuñez, Irazaburu-Jauregi, Lezaun-Martin, Senperena-Jauregi eta Aranzabe-Olazabal.

Etzi, igandea, Iriarte-Epelde, Martinez-Eskudero eta Katalina-Setien ariko dira nor baino nor.

LEITZA ▶ GIZARTEA

Euskal presoak ere gogoan izanen dituzte festa egunetan

Pesta hirugarrenerako, abuztuaren 13a, «euskal preso eta iheslarien aldeko eguna» antolatu du ezker abertzaleak

JAIONE ASTIBIA

«Abuztuaren 10ean hasiko dira festak. Baina beste behin, ez gaude guztiak. Oraingoan, herriko bi seme, Igor eta Eneko falta ditugu, biak Espainiako kartzeletan, bata Navalcarneron eta beste Aranjuezen espetxeratuta dituztelako, Espainiko Estatuaren indarrean dagoen *porque sí*-aren legean *oinarritu* eta Audientzi Nazionalako epaileen aginduz. Baina ez dauzkagu ahazteko eta gure senide eta lagun hauek, gainerako euskal preso politiko eta iheslariekin batera etxean ikusi arte lanean jarraitu beharra dugu. Festa eginez, bai, noski, baina gurekin ez daudenak present edukiz». Horrela, «Leitzako festetan ere», herriko presoak gogoan izanen dituz-



Urtero —iazkoa goian— egiten da presoaren aldeko kalejira. J. A.

tela adierazi du ezker abertzaleak eta abuztuaren 13an «preso eta iheslarien aldeko eguna» egiten dutela iragarri, egun horretako agendarako, bi ekitaldiren berri emanez.

Iluntze partean, 20:30ak aldera, kalejira egiten omen dute, musikariak lagun dituzte-

la, *Euskal preso politikoak etxera! Igor eta Eneko askatu!* leloarekin. Ondoren, herri afaria, plazako Karrapean. Aditerra eman dutenez, afari horretara joan nahi dutenek, txartelak salgai izanen omen dituzte Torrearen tabernan bertan, abuztuaren 11a arte.

LEITZA ▶ PILOTA

Pesta hirugarrean, pilotari profesionalak

Beste bi egunetan ere izanen dira partiduak baina herriko jokalariek gazteak ariko dira

J. ASTIBIA

Dagoeneko, festa kutsua narbaria da herrian, entzierroetarako itxitura ere jarrita baitago. Horrela, antolaketa lanei azken ukituak ematen ari dira han eta hemen, eta egitarauak ahalik eta gehien zehazten ere bai.

Hala, HITZAK jakindu duenez, aurtengo santiburtziotan ere izanen dira pilota partidu profesionalak. «Programa bakarra» izanen omen da, «Asegarce enpresako jokalariekin», zehaztu zuten, eta «pesta hirugarrean», alegia, abuztuaren 13an. Antolatzailerak —herriko pilotazaleak— eta aipatutako enpresa horretako ordezkariak «asko hitz egin ondoren», ziotenez, azkenean akordio batera iritsi omen ziren («festetarako pilota jaialdi txukuna»), lortuz. Esan bezala, aurtengoz jaialdi bakarra izanen da horrela, baina merezi duena, egun horretarako egin eta prestatu duten

aukeraketa ez baita nolana hkoa, hara. Aurreneko partidua hauek jokatu dute: Julen Retege-Iñaki Eskudero/Iñaki Esain-Mikel Medina; eta estelarra, berriz, honako hauek: Oinatz Bengoetxea-Iñaki Otxandorena/Mikel Unanue-Ruben Beloki. Amazabal pilotalekuan 19:30ean hasiko da pilota ikuskizuna.

Badira, ordea, beste pilota jaialdi batzuk ere festa egunetan. Horrela, abuztuaren 11, San Tiburtzio eguna izaki, Ezpatadantza ondoren afizionatu mailako pilota partidua jokatu dute plazan bertan: Ibai Bengoetxeak eta Asier Gartzia, Mikel Olazabalen eta Iñaki Iparragirrenen aurka.

Eta 14ean, berriz, kadete eta gazte mailakoak ariko dira. Aurrena, Oihan Alduntzin eta Xabier Alustiza, Haritz Sagastibeltzaren eta Migel Olanoren aurka; hurrena, Aimar Lanzalot eta Mikel Iriarte, Hodei Iturriotz eta Zuhaitz Belokiren aurka.

LEITZA ▶

Gaur da hileroko azken ostiraleko elkarretaratzea

Euskal presoak etxera! leloa buru dutela, gaur iluntzean, 20:00etan egiten dute elkarretaratzea, ohi duten gisan, Lopeneko atariko biribilunean. Euskal Herriko gainerako herri guztietan bezala, hila-beteko azken ostiraletan Etxerat-ek, euskal preso politiko senideek eta lagunek osatzen duten elkarteak, egiten duen deialdiarekin bat eginez.



Hilabetero egiten dute elkarretaratzea. Iruditan, maiatzean herriko plazan egin zena. J. ASTIBIA

LEITZA ▶

Gazteek gaurko deituta zuten batzarra atzeratu

Leitzako Gazte Asanbladak gaur iluntzerako deituta zuten batzarra, «astelehenera atzeratu» du, eta «bertara deituta zeuden herriko eragileei jakitera eman» nahi izan zien, atzo aditerra eman zuten oharrarekin. Horrela, bilera, 20:00etan egiten dute, Ateka Beltzan bertan, egitekoa zen moduan, eta eztabaidagaiak ere iragarritu zeudenak izanen omen dira.

- ▶ hilberriak
- ▶ urteurrenak
- ▶ eskertzak

Gipuzkoan
50.000
etxetara

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira
Telf.: 943 65 56 95
tolosaldean@tolosaldeko hitza.info

HITZA guztietan prezio beragatik

Harpidedunei banatua ▶ 2005eko uztailaren 29a, ostirala ▶ III. urtea

'HITZA' LAGUNTZEN DUTEN ERAKUNDEAK

udalak: Kataloia, Aduna, Abitur, Aaga, Albia, Ametsu, Anorta, Anzo, Balaran, Beaurte, Benasob, Bernis, Etsuin, Hernialde, Ibara, Itur, Lebara, Lizarra, Oteiza, Oteiza, Tolosa, Villabona, Zuzaki beaterik: Leitzaldeko Euskara Batordea

Gipuzkoako Foru Aldundia

Eusko Jauriltzaia Kultura Saila

Igarotzeko bide

ANOETA ▶ Igerabide baserria zenak eman dio izena Igerabide kaleari



Solkorre eta Idiakaiz lotzen dituen kalean zegoen baserri hau. HITZA

ERREDAKZIOA

Duela urte pare bat edo hiru Solkorre kalea eta Idiakaiz auzoa lotzen dituen Anoetako kale berriari Igerabide izena jarri zitzaion. Izen horren jatorria Igerabide izeneko baserrietik dator, aipatutako kale horretan Igerabide izena zuen baserria egon baitzen garai batean.

Jakin ahal izan denez, XVII. mendean eraiki zuten baserri hori, hain zuzen ere, Anoetako hirigunea eta herriko leratxulo izeneko errota lotzen zituen bide bazterrean. Orduko argazkietan ikusi denaren arabera, bide nagusi horretara begira zegoen baserriaren fatxada

nagusia, eta XVII. mendean hain berezkoak eta ohikoak ziren zurezko bilbadurak eta arlanduzko eskantzek apaintzen zuten. 1810. urtean bertze-lan batzuk egin omen zituzten bertan.

Baserri zahar hura desagertu egin da urteen podertioz, eta, hala, San Joan Kaleko 2. zenbakia duen etxebizitza eraikina da gaur egun orubearren gainean dagoena. Anoetako udal ordezkariak jakitera eman dutenez, XVII. mendean eraikitako baserriaren izena da Igerabide kale berriarenaren jatorria. Alegia, baserri hark zuen izenak eman diola deituta kaleari. Igerabide zena Igerabide bilakartu dute, baina.

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Alegia. AHTren aurkako X. akanpada Langaurren. Eguneko egitaraua: goizean, Aralarra mendia marxa egun osorako; 19:00etan, hitzaldia: *El turismo como forma de produccion capitalista*. Hizlaria: Valentziako Asanblea des maulets de L' Horta-ko kide bat; 21:00etan afaria eta ondoren, Jonas kantautorea eta Aluaren algarra bikotea. Bihar: 10:30ean, Tzialaren eskutik, umeentzako tailerra eta sendabelarren tailerra; 11:00etan hitzaldia: *Errauskailuak eta plan alternatiboa Gipuzkoan*. Hizlaria errausketaren aurkako plataformako kidea izango da; 14:00etan, bazkaria, eta ondoren KB-AHT dekorazio tailerra; 18:00etan zagiardoa; 22:30ean kontzertua Bulebarrean Lobo electrico, Perras del infierno eta Elfo negro taldeen eskutik eta egunari bukaera emateko DJ Sugar-en saioa.

Berastegi. Gaztainondo jubilatuaren elkartetik jakinarazten dute podologoaren bisita eguna bihar izango dela. Aurrez ordua hartzeko Gaztainondo elkartera jo beharko da. **Tolosa.** KZgunea abuztu osoan itxia egongo da. Irailaren 1ean zabalduko da betiko ordutegiarekin, 09:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara. **Tolosa.** Atsedena aisialdi taldeak Errioxan egingo duen kanpaldian Familiaren Eguna izango da abuztuaren 7an. Hara bisitan, eguna pasatzera joan nahi duenak katekistaren bati esan edo 628 883435 telefonora deitu behar du.

Tolosa. Arantzazura peregrinazioa antolatuko du San Frantzisko elizak etziraiko, San Inazio eguna. Izen-ematea eta bazkarirako txartelak 16 eurotan, San Frantzisko elizan. **Tolosa.** Iturrija jubilatuaren eta pentsiodunen elkarteak Errioxako (Espainia) Brioneseko Ardoaren Museora irteera antolatuko du abuztuaren 5erako. Izen-ematea, elkartearen bertan.

Tolosa. Umorezko bakarrizketa lehiaketa antolatuko du Udalak. Euskaraz, orijinalak eta 500-700 hitzekoak. Sariak: 500 euro lehenak, 300 euro bigarrenak eta 150 euro hiriko lehenak. Irailaren 15 arte eraman

daitezke Aurrerako udal bulegoetara. **Tolosa.** Txobxongilo antzerkia haurrentzat idazlan lehiaketa, Tolosako Ekinbide Etxeak (CIT-TEE), Titirijai barruan, txobxongilo antzerkia haurrentzat idazlan lehiaketa antolatuko du. Irailaren 1a baino lehen aurkeztu behar dira. 4.000 euroko saria dago eta obra eszenaratu egingo da.

Tolosa. Harizpe jubilatuko elkarteak irteera antolatuko du Laredora (Kantabria) abuztuaren 26an, Loreen Bataila ikustera. Izen-ematea, Harizpe elkartearen abuztuaren 22a bitarte 30 eurotan. **Tolosaldea eta Leitzalde.** Etxerat elkarteak deituta, hileroko azken ostiraletan egiten duten euskal preso politikoen aldeko konzentrazioa; herri bakoitzean, ohiko ordu eta lekuetan. Bihar, berriz, N-1 errepidean *Euskal presoak Euskal Herrira* aldarrikatzeko ekimena, *Sakabanaketak ez du oporrik* lelopean, 12:00etatik 13:00etara.

ERAKUSKETAK

Alegia. Jubilatuen tabernan Fernando Rojo tolosarrak eta Izarne Garmendia irurarrak Afrikan zehar ateratako argazkiak ikus daitezke.

Aitzo. Xabier Galizaren akuarelak daude ikusgai Poxpolin enmarkazio dendan (San Frantzisko kalea). Paisaiak dira gehienak. **Hernialde.** Pepi Arrutiren oliopinturak daude ikusgai Herriko Ostatuan. Paisaiak eta itsasoa dira gai nagusiak.

JAIK

Aitzo. San Inazio jaiaren barruan zikiro jatea antolatuko dute gaurko 20:30ean. Txartelak salgai dira Arandia Jatetxean. Salneurria 18 eurokoa da eta 200 txartela jarri dituzte saltzeko. **Ikaztegieta.** Jaietako herri afaria abuztuaren 6an izango da. Bertara joateko izen-ematea Toki alai tabernan egin beharko da hilaren 31 baino lehen.

KIROLAK

Tolosa. Tolosa CF-k antolatutako XXXVII. Paleta Txapelketako finalak Berazubiko frontoian 19:00etan. Ondoren,

parte-hartzaileen arteko afaria bertako jatetxean.

Tolosa. Euskal selekzioaren aldeko Kostako Itzulia antolatuko du Etsait-ek bizikletaz. Triangulotik abiatuko dira 09:00etan. Bazkarirako izen-ematea, Txiki tabernan, 15 eurotan.

Tolosa. Kirol elkarte eta klub egiturak garatzeko udal diru laguntza arruntak eskatzeko epea hilaren 31n bukatzen da. Informazioa, udaletxeko erregristron.

Tolosa. Usabal kiroldegirako igeriketa monitoreak behar dira, ur sorosle eta monitore tituluekin eta salako ariketak emateko gai. Izena emateko: 943 69 43 22 edo curriculum bidali Villabonako kiroldegira (Kale Nagusia 72) edo villabona@serdepor-kiroler.

Villabona. Plater tiraketa Amasamendiko Onddo zelaian bihar. 11:30etik 13:30era eta 16:00etatik 18:00ak arte. 885 euro dirutan, sariak aparte. 15 plater gorri tiratzaileko. 15 metroko distantzia. 6 tiratzaileko taldeak. Izen-ematea bertan: Helduak: 25 euro; juniorrak eta neskak: 3 euro (platerak soilik) eta jubilatuak: 16,20 euro. 09:30etik 11:30ak arte, entrenamenduak.

MUSIKA

Tolosa. Tolosako Musika Bandak San Inazio kontzertu berezia eskainiko du Plaza Berrian 22:30ean, euskal gaiekin, Gau Giro programaren barruan.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Leitza. Larraia, M. Elbarren, 52. 112.
Tolosa. Santa Maria, I. Nafarroa etorbidea, 2 (Tolosa). 943 65 46 10.

IRRATIA

Txolarre (FM 107, FM 101)
11:00-14:00. *Tolosaldeko ahotsa*, azken saioa: eguraldia Joxe Landarekin; Hitzaren gaurko alea; oharrak; albisteak; Juan Manuel Erason, Zuzurkilen bizi den aiarrekin elkarrizketa Joxe Anjel Sarasola lankeia ere lagun dutela; agenda; Tolosaldeko Etxerat elkarteak kideei elkarrizketa, tartean Ander Geresta preso zuzurkidarrari elkarrizketa, Frantziako Moulinseko espebete; lehiaketa eta disko eskainiak.
19:00-21:00. *Tolosaldeko ahotsa* saioaren errepikapena.

▶ HITZA ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanetan eta iritzien erantzukizunik.

AGURRAK ▶



URTE ASKAOAN
Leire Lezeta (Ibarra). Gaur 6 urte. Zorionak ebekoen partetik, gure printzesa. Ondu pasa zure egunean.

HITZA, zorion agurren tartea
 Urtebetetzeak, urrezko etzeiak, ezkontzak, jaiaberriak... zoriontzeko, etorri!
 HITZAren egoitzetara:
 Araba etorbidea, 5 behea - **TOLOSA**
 Udaletxeko bulegoa - **LEITZA**
 Mesedez, argazkia bi egun lehenago ekarri.
 Mila esker!